

Funtsezko jarduerak

Gure funtsezko jarduerari dagokionez, 3 jarduera nagusitan banatu ditugu: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma jarduerak.

Alde batetik, ekoizpena ez dugu geuk egingo, Kinova enpresaren esku utziko dugu. Izan ere, gure produktua ekoizteak oso kostu handiak ditu, eta, honi gure finantza baliabide eskasak gehituz gero, ekoiztea ezinezkoa dela konturatu ginen. Horregatik, Kinova enpresarekin aliatzea erabaki genuen, beraien produktua Espainian sartzeko. Hala ere, guk bezeroen beharretara egokituko dugu beso mekaniko bakoitza.

Bestalde, arazoak guk konponduko ditugu. Edozein bezerok gure produktuarekin inolako arazorik izango balu, guregan etor liteke, eta bere arazoa konpontzen saiatuko ginateke. Horretarako, gure YouTube kanalaren bidez edo webgunearen bidez gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, eta hitzordu bat adostuko genuke.

Azkenik, plataforma jarduerak gure teknikariek kudeatuko dituzte. Gure webgunearen mantentze-lanak egiteaz arduratuko dira, hain zuzen. Webguneak edo YouTubeko kanalak edozein arazo izanez gero, haiek konpontzeko lana egingo dute, dena ondo funtziona dezan.